

Errealitatea fikziora ‘Maixabel’-en eskutik





10-16

AURKIBIDEA

Iritzia Izaro Zubiria **3**

Erreportajea Munduan barrena
berri emale **4-7**

Xiberutik Aitor Atxega **8-9**

Asteko Gaia Juan Mari Jauregiren
arrastoari jarraika **10-16**

Olerkia Igor Estankona **19**

Iritzia Joxe Agustin Arrieta **20**

Iritzia Arantzazu Lizartza **21**

Bertsoa Izar Zelarain **23**

Ageda

Habi eta Etxekalte elkarrekin **26-29**



26-29



21



Azaleko irudia
ATARIA

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai
erabiltzen eta
lana egiten

3ikam
Kulturaren

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:


Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





**IZARO ZUBIRIA
IBARGUREN**
ALBAITARIA

Iritziak arrapalan



raingoan artikulua idazteko epeak hutsean harrapatu nau. Ordenagailu aurrean ipini eta... Gaia; zer idatzi, zeri buruz idatzi, zuei zer kontatu. Burura ideia arrapala nahasia:

Agian futbola? Apirilaren 3an izandako finala, zazpi egunez 24 orduz komunikabideak bete zituen, gure bizitza arautuari irtenbidea emango zion gertakaria zirudiena. Erdizka ikusi nuen eta aitortzen dut ia ez nuela hautematen baloiak hartu behar zuen norabidea, horregatik, eta zaleenganako errespetuagatik, ez dut azalduko futbolarekiko dudaren iritzia. Berdin, ni futbolarekin bezain galduta daudelako goikoak, argi daukat Koronabirusari buruz ere ez dudala idatziko.

Feminismoa? Ezta ere, feminismoa oso gai konplexua da niretzat, horren konplexua bilakatu da, dagoneko ez dudala ulertzen aldarrikapen batean edo borroka batean datzan, eta noren aurkako borroka. Maita orokorrean, emakume feminista eta ahaldundua sentitzen naiz, baina aldi berean oso lotua, gizartearen presiopean, eta askotan, galdu dugun gure amonen sutondoa desiratzen duena.

Legeei buruz? Aurrekoan lege berrien bila ibili nintzen, baina azkenekoz onartu den Errege Dekretua, zeinak lehen mailako elikagaien ekoizpena arautzen duen, ez da desiratzeko modukoa. Araudi honek esne gordinaren arriskua, Koronabirusaren pareko jartzen du; kontsumitzailearen osasuna bermatze aldera, legeak analisi kopuru handia egitea eta esnearen bizi-raupena hiru egunetara murriztea exijitzen die ekoizleei. Betiko moduan, baserritar txikiek ezin dituzte al-

daketa horiek jasan, beraz, ADIO BERTAKO ESNE GORDINARI! Gogo faltagatik ez da, baina horretan ere ez naiz murgilduko, betiko leloan idazten dudala entzun beharko dut eta. Arrazoi beragatik ez dut iritzirik emango, ekologikoaren izenean sortzen ari diren, eta sortuko diren agroindustrien eta marken inguruan; giza neurrikoak ez diren ustialekuak, milaka kilometroetatik ekarritako lehengaiekin ekoiztuak, animalien ongizatea neurri batzuetara soilik mugatzen dutenak... Horra hor ekologikoa eta agroekologikoaren aldea.

Gaurkoan, nekeagatik edo desberdin egiteagatik, ezeri protagonismoa eman gabe, ezer ez idatzita edo dena, hor uzten dizuet, bizia bera bezala, nire buruko iritzi arrapala

Milaka gai daude egunerokotasunean ezbaian jartzen direnak, milaka gai inkoherentzian erortzera eramaten gaituztenak, ehunka norberak dituen printzipioak eta ehunka hauei heltzeko zailtasunak, eta handia, batzuetan, aldarrikapenerako sentitzen den nekea. Gaurkoan, nekeagatik edo desberdin egiteagatik, ezeri protagonismoa eman gabe, ezer ez idatzita edo dena, hor uzten dizuet, bizia bera bezala, nire buruko iritzi arrapala.

«Gerra informazioaren eremuan ere ebatzen da»

MOHAMED LAMIN HAMDI
KAZETARIA

Mendebaldeko Sahara du jatorrizko herria nahiz eta inoiz ez duen bere lurraldea ezagutu; bere herriaren burujabetzaren alde borrokatzeko kazetaritzaren bidea aukeratu du, eta orain, Tolosaldeetik ari da lanean.

Jon Miranda

Barberia Beramenditarren etxera, Ibarrara, 2000. urtean iritsi zen lehen aldiz Mohamed Lamin Hamdi (Dajla, Tindouf, 1992). *Oporrak Bakean* programan parte hartu zuen bost urtetan eta iazko abendutik, berriz ere, hemen bizi da. Kazetari lanak egiten ditu, besteak beste, Aljeriako *El Badil TV* telebistarako. Egiten dituen erreportajeekin Euskal Herrian saharar herriarekiko dagoen elkartasun mugimenduaren berri ematen dio arabiar munduari.

Zein oroitzapen gordetzen dituzun lehen aldiz Euskal Herrira iritsi zineneko garaiaz?

Oso oroitzapen politak ditut. Lehen aldian ez nuen hizkuntza menderatzen eta dena arrotza egiten zitzaidan. Dena den, esperientzia bikaina izan zen bost urteetan bizi izan nuena. Hemengo familiak bikain jaso ninduen. Oso eskertuta nago eta asko maite ditut. Asmoa dut hemengo familiarekin bizi izan dadana jasoz liburu bat egitekoa eta haiei eskaintzekoa.

Errefuxiatu kanpamenduetan jaio zinen zu. Familia zabala zarete?

Bai. Nire gurasoak SEAD Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren sorrera ezagutu zuten eta Mendebaldeko Saharatik ihesi atera behar izan zuten. Nire aitak gerran borrokatu zuen eta osaba bat ere hil ziguten. Gurasoak orain errefuxiatu kanpamenduetan bizi dira, bi ahizpa eta hiru anaia ditut. Anaia gazteenak azaroan piztu zen gerran parte hartu zuen eta zauritu egin zuten frontean. Orain osatzen ari da.

Zu hemen Euskal Herrian zaudela piztu da gerra. Nola bizi izan duzu zuk egoera hori?

Nire familiarengatik kezka badut, baina handiagoa da nire familia handiarekiko dudaren ezinegona. Gure jatorrizko herria lapurtu ziguten eta horrek atsekabe izugarria sortzen dit. Guk Mendebaldeko Saharan lan eta bizi nahi dugu eta helburu horren alde borrokatuko dugu hil arte. Gure lurraldea ez da inoiz Marokorena izan eta ez da sekula izango.

Oinarrizko ikasketak errefuxiatu kanpamenduetan egin eta ondoren Aljeriara jo zenuen.

Bai, bigarren mailako ikasketak Ben Srouer M'silan egin nituen eta gero Aljeriako hiriburua jo nuen kazetaritza ikastera.

Zergatik erabaki zenuen kazetaritza ikastea?

Txikia nintzenean irratia asko entzuten nuen. Gero, gazteagotan, medikuntza eta zuzenbidea ikasteko aukera burutik pasa zitzaidan baina ikuspegia aldatu eta pentsatu nuen kazetaritza izan zitekeela nire herria laguntzeko modu bat. Marokok zabaltzen dituen gezur guztien aurka borrokatzeko arma bezala ulertzen dut nire ofizioa. Odolean daramat kazetari sena.

Kanpamenduetara iritsi eta berehala hasi al zinen lanean?

Bai. 2015ean bukatu nituen ikasketak eta ikus-entzunezko formazioa jaso nuen 2016an. Karim Boussalem irakasle bezala izan nuen eta nire ibilbidean bultzada handia eman zidan. Errefuxiatu kanpamenduetara itzulita SEADren *RASDTV*n hasi nintzen lanean. Telebista aurkezle bezala jardun dut eta erreportajeak landu ditut. Berriemaile bezala ere aritu izan naiz lurralde liberatuetan eta gobernuko kideak elkarrizke-

tatzeko aukera izan dut. Mauritaniako telebistaren-tzako lanak ere egin izan ditut eta Hama Mehdirekin kolaboratu dut beste hainbat mediotan. Asko animatu nau aurrera egiten. Saharako albiste agentzia independenteko arduraduna da Mehdi eta Saharako Informazio ministerioko webguneen zuzendari.

Marokok gezur asko zabaltzen al du saharar herriaren inguruan?

Bai, Marokoko iturrietatik esaten den ia guztia da gezurra eta gure lana egia azalera- tzea da. Guretzat gerra informazioaren eremuan ere ebazten da, frontean ebazteaz gainera. Munduari erakutsi nahi diogu Marokok bere atzaparrak sartuta dauzkala gure herrian eta erre- presio itzela egiten duela sahararren kontra.

Iaz errefuxiatu kanpamenduetatik ateratzea erabaki zenuen. Zergatik?

Oso gogorra da hango bizimodua. Udak oso beroak izaten dira eta bizi baldintzak oso zailak. Pentsatu nuen nire herria ere lagundu nezakeela kanpotik. Gainera, kazetaritzaren mundu honetan molde berriak probatu eta ikasteko gogo- a dut, hori guztia nire herriaren mesederako izango baita azken batean. Iaz Albacetera (Espainia) iritsi nintzen. Paperak lortu be- zain pronto Euskal Herrirako bidea hartu nuen. Bizi- modua, Zestoa, Amasa-Villabona eta Ibarra artean egiten dut.

Hemendik jarraitu izan duzu kazetari lanetan.

Nire gobernu- ko telebistak eskatuta egin izan ditut zenbait lan. Adibidez, Abdulah Arabi Fronte Polisa- rioko Espainiarako enbaxadoreari elkarrizketa egin nion RASDTVrentzat. Dena den irakasle izan nuen Souleyman Bakhelilirekin oso eskertuta nago. Alje- riako *El Badil TV* telebistan aritzeko aukera eman dit. Gure herriarentzat izugarritzko bozgorailua da. Saha- rako auzia mundura zabaltzeko leihoa da.

Zer-nolako lanak burutu dituzu Euskal Herritik?

Mota askotakoak. Zestoa- n bizi den Aziza Boda elka- rrizketatu dut. Adindua da eta Mendebaldeko Saha- raren historiaren giltzak ezagutzen ditu. Anoetako



Mohamed Lamin Hamdi Tolosako Amalur parkean. J.M.

Ana Elosegiri ere egin diot elkarrizketa *Oporrak Ba- kean* programari buruz aritzeko eta Tolosaldea Saha- rarekin elkarteko Gregorio Eizagirrerekin egon naiz. Amasa-Villabonan egiten dituzten elkartasun ekime- nen berri emateko bertako udal ordezkariekin osatu dut beste erre- portaje bat eta Tolosaldean egin diren mobilizazioen kronikak bidali izan ditut.

Zein helburu bete nahi duzu kazetaritza lan haue- kin?

Mezu garbiak bidali nahi ditut. Gure herriari adierazi nahi diot mundua gurekin dagoela eta elkartasun handia bideratzen dela hemendik, Euskal Herritik, bi herriak senidetuta gaudela borroka berean. Hemen Mendebaldeko Saharako bandera ikusten dudana ba- koitzean harrotasunak hartzen nau eta gure herria- ren aldeko borrokan jarraitzeko indarra hartzen dut.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa

ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

HANGOA HEMEN KONTATZEKO

Hemen dagoenak hango berri lehen eskutik jaso ahal izateko, han egon behar du norbaitek eta informazioa bidali edo ekarri behar du. Bidaiatuz lan egiten dutenek aukera hori ematen dute. Azken urteetan Kuban, Palestinan eta Iranen izan da Ura Iturralde argazkilaria, lanean.

Irati Saizar Artola

Askok lan egin behar izaten dute gero bidaiatu ahal izateko. Baina badira lan egin ahal izateko bidaiatu behar izaten dutenak ere, atzerrian lan egiten dutelako. Eta badira ere atzerrian lan egitea hautatzen dutenak gustatu egiten zaielako, hala nahi dutelako. Horren adibide da, esaterako, Ura Iturralde argazkilaria tolosarra.

Urteak daramatza Iturraldek lehen afizioa zuena orain lana bilakatuta. Etxetik gertu lan egin ahal duen arren, kanpora bidaiatzera ohituta dago eta egun, pandemia egoera medio, zailtasunak baditu ere, desiratzen dago maleta bat hartu eta atzerrira joateko.

Lanerako zure burua eta kamera bat soilik behar duzunean, helmuga ere aukeratu egin behar izaten da. Eta helmugarekin batera, lan egiteko gaia, lekua, motiboa. Iturraldek egunero «asko» irakurtzen du, eta sare sozialak gehienbat munduan zehar argitaratzen dituzten albisteak irakurtzeko erabiltzen ditu. «Deigarria egiten zaidan albiste edo gairen bat aurkitzen badut, koaderno batean apuntatzen dut, lista luze bat egin arte». Herrialde ezberdinetako errealitateak ezagutzen ibili da azken boladan. Gehiegi kontatu gabeko istorioak kontatzea du gogoko, bueltan hona iristen denerako: «Gatazkak, esaterako, oso kontatuta daude, eta nik ez nuke inork baino hobeto egingo; guztiek egiten duten berdina egitea ez zait gustatzen».

Azken bidaiak Iranera egin ditu, bi urtez joan da hara. «Artikulu batean irakurri nuen transexualitatea

Iranen legezkoa zela eta gainera, gobernuak ordaintzen zuela sexu aldaketa egiteko ebakuntza». Harrituta, egia ote zen ikertzen hasi zen: «Iranera joan nahi nuen, eta galdetu benetan irakurri nuena egia ote zen». Kontaktu bat lortu zuen Telegram bidez eta Teheranera iritsi eta bigarren egunean kontaktu horren berririk gehiago ez zuen izan. Hala ere, sei lagun aurkitu zituen benetan gaiaz hitz egin nahi zutenak eta argazkiak atera nahi zituztenak. «Erreportaje hori egiten hasi nintzenean konturatu nintzen nik aurretik irakurritako guztia gezurra zela, izan ere, gobernuak pertsona horiek onartu ahal izateko behartu egiten ditu sexu aldaketa egiteko ebakuntza egitera, eta kasu honetan, nik han ezagututakoek ez zuten ebakuntzarik egin nahi».

«Iran oso polita da, oso atsegina, baina kontuan izan behar duzu non zauden. Dena ezkutuan egin behar izan nuen, moralaren polizia dagoelako kalean zelatan eta gai korapilatsua denez atxilotua izan nintzekeelako», kontatu du Iturraldek. Argazki baten atzean ordu asko daude. «Nik argazkia ateratzeko pertsona hori asko ezagutu behar dut, bestela bera ez dago lasai eta nik ere ez dakit nola, non atera». Teheranera egindako bidaiari, lehen argazkia hamargarren egunean egin zuela dio. «Beraiekin mila kafe hartu eta gero, behin lagunak eginda hasi ginen argazkiak ateratzen, bestela ezinezkoa da».

Beste helmugetako bat Kuba izan du. 2017ko urtarri-lean joan zen hara. Hedabide batean irakurri zuen Ku-



Daneshjoo Park, Teherango parke bat, gauez gay komunitatea elkartzen da bertan. **URA ITURRALDE**

ban ez zegoela erlijio askatasunik, eta egiaztatzen joatea erabaki zuen. «Ikusi nuen bazegoela erlijio askatasuna, Habanara joan nintzen eta erlijioen Eurodisney ematen zuen. Mesquita baten ondoan eliza ortodoxo grekoa bat aurki daiteke, haren ondoan errusiarra...».

Urte bereko irailean iritsi zen Palestinara ere. Beduien bila abiatu zen hara, nola bizi ziren kontatzeko asmoz, eta bidaian zehar samariarrak ezagutu zituen. «Biblian ateratako herrialde bat zela konturatu nintzen

eta harrituta geratu nintzen oraindik existitzen zirela jakitean». Har hori piztuta, beraiekin geratu zen hogei egunez eta haiekin egin zuen erreportajea. «700 samariar inguru daude munduan, eta momentu honetan gatazkan ez dute parte hartzen; guztiekin ondo eramaten dira eta beraien kasa bizi dira, beraien erlijioa dute eta pozik bizi dira».

Berririo ere atzerrian lan egiteko gogoz dago Iturralde, eta berririo ere Ekialde Hurbila du begiz jota.

ATARIAN jarrita Goierri eta Urola Kostako Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€

Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€

Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



AITOR ATXEGA
MANEX BAT

Xiru gogoan

Zertaz idatziko duenari bueltaka ibiltzen da manexa tekla aurrean eseri aurreko bizpahiru egunetan. Garaian garaikoaz idazten saiatu naiz zerbait denean eta horrela behar duelakoan nago orain ere. Bila aritu gabe Xiru festibalarekin topo egin nuen orain urte batzuk Zuberoan Aste Santu garaian. Jakin-nahiak kotxea geratzea ekarri zuen eta kotxea geratzeak ondorengo dena. Aurten 32. edizioa zatekeen COVID-19rik ez balitz. Erraz da 32 esaten!

Xiru musika eta sorkuntza jeialdia Xiberoan izenarekin zabaltzen edo iragartzen da. Abotia Elkartek auzolanean antolatzen du hiru edo lau egun irauten dituen festibal hau. Abotia Elkartek Gotaine Iribarren du bere sorlekua eta bere lehen pausuak hemen eman bazituen ere, denborarekin Zuberoan barrena barreiatzen joan da festibala. Gaur egun Gotainen ez ezik, inguruetako herrietan ere (Iruri, Maule-Lextarre, Altzürükü, Barkoxe, etab.) izaten dira ekitaldiak.

Festibala ez da tradizionala, ez da postal kostunbrista bat eta ez da ezkontzen zuzen-zuzen igande bateko familia plan zintzo batekin. Antolatzailleek diote gune experimental bat dela, laborategi bat. *Le-kuko jendea* maite da Xirun, saltsan dabilen artista klasea etortzen da, filtro artistikorik gabekoa... Ez duzu ikusiko boladan den eta bi mila pertsona ekartzen dituen proposamen bat, baizik eta ezohikoa den proposamen bat: egur kaxa batekin neandertalgo gizaki bat hotsak ateratzen, euskal kabareta bat, txiru-



la bat reggae edo breakdancearekin jolasean... Hona hemen beste batzuen artean antolakuntzan burubelarri ibiltzen den Mixel Etxekoparrek *Kanalduden* eginiko gogoeta bat. Holatsu zioen: «Euskal kulturari eta euskal hitzari gogoeta egiten dio Xiruk. Sabeleko mina denok bizi dugu Euskal Herrian eta dugun min hau partekatzeko eta ateratzeko bide bat Xiru: alegia, artea sendagai! Leiho bat irekitzen du Xiruk. Kanpora ateratzeko eta kanpokoak sartzeko leiho bat da Xiru. Harrotasuna iristen da leihotik mundura begiratuta eta ez zilborrari begira».

Musikak leku handia du jaialdi honetan baina bes-



telakoak ere baditu, eta asko gainera. Bada Ütürzabal izeneko arte ibilbide bat Gotainen, eta azken urteetan, zuhaitz zoragarri artean, edozein herrialdeko artista bateko obra bat ipintzen du bertan Xiru festibaleko egitarau barruan. 2018an Koldobika Jauregik bere *Pareta* obra ipini zuen. Xirun zarelarik, zirku batean senti zaitezke, pilota partida bat ez den pilota partida batean ikusiko duzu zeure bu-

Xiru festibala ez da tradizionala, ez da postal kostunbrista bat eta ez da ezkontzen zuzen-zuzen igande bateko familia plan zintzo batekin

rua, txotxongilo emanaldi bat ikusiko duzu jauregi zahar-zahar ilun bateko ukuiluan, hiruzpalau hizkuntza entzungo dituzu...

Ez dut ahaztuko 2019ko gonbidatu nagusia. Aeham Ahmad ezagun egin zen munduan zoritxar bat tarteko. Sirian gerra piztu zen eta bere autua izan zen jendeari gerraren gordintasuna arintzen saiatzea musikaren bidez. Daeshek pianoa kendu eta erre zion arte, bere pianoa hartu eta kalean musika eskaintzen ibili zen. Haurrei batez ere. Pianoa erre ziotenean erabaki zuen Alemaniara joatea. Gogoan dut Gotaineko aretoan umil-umil, etengabeko irribarre bat ahoan, nola ipini gintuen denok kantuan. Euskara jakiteko motibo asko ez zuen arren, euskaraz kantatu zuen... Jauziak izan ziren bere musikaren inguruan, txirulak...

Maiz gogoratzen dudana beste perla bat ere bada nire baitan: Xiberoots taldearen estreinaldia 2016an! Batzuetan uste dut gure euskal musika talde gazteek, beraien hizkuntzatik, tradizioetik eta historiatic urrun samar behar dutela egon non eta proposamenak garaikidea kontsideratuko den. Ingeles izena, ingelesez abestu... Nik ez nuen Xiberoots ezagutzen eta harri geratu nintzen kontzertu hura ikusi nuenean. Oso jende gaztea, inongo arropa estetika jakinik gabe, Iruri eta Leteren hitzak reggaen... Basoari eta

euskarari kantatzen... Interpretazio maila ikaragarria eskaini zuten; horrela iritsi dira gero iritsi diren lekura.

Xiru ez da izango beste festibalak baino hobe baina bai desberdina, irekia eta zabala. Nik ikusi ditut Europa Ekialdeko artistak, Armeniakoak eta Britainiakoak, Baltikokoak, eta beste asko.

Aurten ezingo duzu joan, baina zoaz ahal baduzu 2022an. Ez zara damutuko, ziur!

TOPAKETA, DOKUMENTALA ETA FILMA JUAN MARI JAUREGIREN INGURUAN

Aurtengo uztailean hamabi urte beteko dira Tolosako Fronton kafetegian ETAk Juan Mari Jauregi hil zuenetik. Bere alargunak, Maixabel Lasak, urteotan bizikidetzaren alorrean egindako lana pantaila handira iritsiko da 'Maixabel' filmari esker.



Joxemi Saizar

Bi mila eta bederatziko uztailaren 29an ETAKo komando batek Juan Mari Jauregi tiroz hil zuen Tolosako Fronton kafetegian. Hurrengo urtean Maixabel Lasa bere emaztea Eusko Jaurlaritzaren Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria izendatu zuten eta kargu horretan zela, besteak beste, Berradiskidetze Topaketak jarri zituen martxan, tartean bere senarra hil zuen komandoko Luis Carrasco eta Ibon Etxezarreta presoekin. Topaketa hauei buruzko *Zubiak* dokumentala egin zen 2019an, eta orain *Maixabel* film luzea ari dira filmatzen.

Zein zen Juan Mari Jauregi? Bilobari azaldu behar-ko balio, hala definitzen du bere alargunak: «Gizon potolo bat, umoretsua, jendearekin hitz egitea eta entzutea gustatzen zitzaiona, lagun laguna, asko

maite zuen Legorreta eta legorretarrak ere bai, nahiz eta batzuk diferente pentsatu». Juan Mari Jauregi Apalategi Legorretan jaio zen 1951n, Deustuko Unibertsitatean Soziologia ikasi zuen, kartzela ezagutu zuen Burgoseko prozesuaren aurka protestatzeagatik, 1973an PCEko kide egin zen, gero Carrilloren aldeko PTE sektorean kokatu zen, eta 1990 inguruan PSEn sartu zen. Alderdi honetako zinegotzi sartu zen Tolosako Udalean 1991ean, Kirol atalean, Jose Gurrutxaga (EA) alkate zela. 1994an Gipuzkoako Gobernadore zibila izendatu zuen Juan Alberto Bellloch Justizia eta Barne ministroak, Margarita Robles estatu idazkari zela.

Zinegotzi sartu zenean ezagutu zuten Jose Mari Villanueva eta Xabier Maiza tolosarrek, hauek Euskadiko Ezkerrako kide zirela. «Berehala egin genuen harreman ona. Gizon irekia zen, Tolosan dendari askok ezagutzen zuten komertzial gisa aritzen zelako. Asko irakurtzen zuen, gaztetatik politikan konprometitu eta harreman handiak zituen, urte berean hil zuten bere lagun Jose Luis Lopez de Lacalle tolosarra bezala. Udaletxean dena kontrolatzen zuen, langileekin harreman ona zuelako, eta hori ez zitzaion batere gustatzen Jose Gurrutxaga alkateari. Bakearen Aldeko Koordinakundea Tolosan sortu genuen laukotean bera zegoen tartean», gogoratzen du Villanuevak.

1993an Euskadiko Ezkerrako sektore nagusia PSerekin elkartu zen eta Xabier Maiza alderdiaren egoitzan hasi zen lanean harreman politikoetako arduradun gisa. Han ezagutu zuen Jauregi, antolaketa atalean lan egiten zuelako. «Plazagizona zen, konplexurik gabekoa. Segituan egin genuen harreman ona, baina gutxi iraun nuen han. Handik gutxira alderdia utzi nuen, Joxi eta Joxeanena gertatu zenean autokritika ez zelako egin, baina harremana mantendu nuen Juan Marirekin», dio Maizak.

Gobernadore garbitzailea

Gobernadore zibil gisa ETaren aurkako borroka izan

zen bere zeregin nagusietako bat, eta horrekin batera Espainiako segurtasun-indarren jarduna Hego Euskal Herrian zuzenbide-estatuaren bidetik eramatea. «Intxaurrendoko kuartela garbitzen saiatu zen eta Guardia Zibilaren zuzendaria izatea gustatuko litzaiokeela esaten zuen», eranstean du Lasak. Kargua hartzeko ekitaldian euskaraz aritzeak zeresan ugari eman zituen.

«Belloch eta Roblesek aurpegi berria bat behar zuten gobernadore jartzeko eta Jesus Egigurenek gomendatuta izendatu zuten Juan Mari. Bestela ez zegoen alternatiba bihurtzeko aukerarik. Inork ez genuen espero bera gobernadore izatea», dio Villanuevak. «Hasieran Galindok Gobernu Zibilera ez zuela joan nahi esan zidan, gobernadorea beti Intxaurrendora joaten zela argudiatuz. Azkenean, Margarita Roblesen bidez lortu zuen joatea, baina denbora guztia zutik egon eta 'bai jauna' eta 'ez jauna' bakarrik erantzun omen zion. Garai hartan oso zaila zen polizia kontrolatzea», gogoratzen du. Askoren iritziz Jauregik gobernadore baino zerbait gehiago izateko gaitasuna zuela dio Maizak, gobernadore izateak muga jarri ziola.

PSOEK hauteskundeak galdu ondoren, gobernadore kargua utzi zuenean, 1996an, ETAren beldur, kanpora joatea eskatu zuen. Aldeasa aireportu eta portuetako denda katearen arduraduna izendatu zuten, lehendabizi Kanaria uharteetan eta gero Txilen. Emaztea eta alaba Legorretan gelditu ziren bizitzen. Maiz etortzen zen. Horietako batean, Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneralaren aurka deklaratu zuen Audientzia Nazionalean, Lasa eta Zabala gazte tolosarren familien abokatuak hala eskatuta. «Egun hartan gustura itzuli zen etxera. Bi gazteen familiarteko norbaitek eskerrak eman zizkion. Gero jakin genuen Pili Zabala izan zela. Orduan esan zidan: 'Ez dakit nork hilko nauen: Galindok edo ETak'. Horrekin dena esaten dut», azaltzen du Maixabel Lasak. Pepi Gorostidi HBko zinegotzi

«Edozein estatuk presoak birgizarteratzeko politika bat behar du. Denok dugu bigarren aukera izateko eskubidea»
MAIXABEL LASA



ohiak Galindoren kontra deklaratzearatik besarkada eman ziola bere aurrean aipatzen du Jose Mari Villanuevak.

Hilketa Fronton kafetegian

Hil aurreko igandean zilarrezko ezteiak ospatu zituzten. Udako oporren ondoren Madrilen finkatzeko asmoa zuen. 2000ko uztailaren 29an, larunbata, 11:40ean, Jaime Otamendi *EITB*ko kazetari elduaindarrarekin Tolosako Fronton kafetegiko mahai batean zegoela, bi lagun atzetik inguratu eta bi tiro egin zizkioten buruan Juan Mari Jauregiri. Asuncion klinikan hil zen handik gutxira. Komandoak erabili zuen kotxea Villabonako Otsabi auzoan leherrarazi zuten.



Maixabel Lasa ezkerrean, eta eskuinean, Blanca Portillo aktorea. **ATARIA**

Arratsaldean bertan udalak batzarra egin zuen, jende ugariarekin eta tentsio uneak bizituz. EA-EAJk eta PSE-EEK aurkeztutako mozioa atentatua gaitzetsiz onartu zen bere botoekin, EH abstenitu egin zen eta PPko bi zinegotziak ez ziren izan udalbatzarrean. Jose Mari Villanuevak klinikan ikusi zuen gorpua eta gero udalbatzarrean izan zen. «Antton Izagirre zen alkatea eta atentatuaren aurka agertu zen maila pertsonalean, baina hori ez zela nahikoa erantzun nion, hilabete batzuk lehenago berak ezagutzen zuen Jose Luis Lopez de Lacalle tolosarra hil zutenean ez zuelako ezer esan», kontatzen du Villanuevak. Batzarraren ondoren, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria udalak antolatutako bilkuran izan zen.

Hurrengo urtean, 2001ean, Maixabel Lasa Iturrioz, Jauregiren alarguna, Biktimeni Laguntzeko zuzendari izendatu zuten eta kargu horretan aritu zen lanean 2012 arte. «Hiru oinarritzko proiektu jarri geni-

tuen martxan: biktimen presentzia ikasgeletan, *Glencree* topaketak Irlandan era guztietako biktimen artean eta berradiskidetze topaketak ETako presoeekin. Saiatuko ginen GAL eta eskuindarrekin topaketa horiek egiten, baina ez ziren sartu horretan», adierazten du Lasak. Eusko Jaurlaritzaren barruan zegoen zuzendaritza hori, Madrilen PSOE gobernua egon zen garaian Espetxe Erakundearen zuzendari Mercedes Gallizo zen. Urte horietan lan handia egin ahal izan zuten alor honetan. Isilean eraman zituzten lan guzti hauek, argitara eman gabe. Ikasgeletako proiektua aurrera ateratzea asko kostatu zela onartzen du. «Irlandan GAL eta ETako biktimak elkartu genituen. Hara joan ginen, hemengo presioa ez izateagatik. Hura aukeratu genuen IRAkoak ere han aritu zirelako antzeko lanetan», zehazten du. Topaketa horietan jende gehiago eranstean joan ziren: torturatutakoak, manifestazioan eta kontroletan hildakoak, bizkartzaina zeramatenak... «Azken finean giza eskubideen urraketak ziren, era guztietakoak. Talde horrek gero publiko egin zen dokumentu interesgarri bat sinatu zuen, minimo batzuk adostuz. Horretarako gai izan ziren. Alderdi politikoak ez dira horretarako gai izan», eranstean du Lasak.

Hiltzailearekin aurrez aurre

Hirugarren proiektua, presoekin izandako topaketak, gerora dokumentala eta orain film luzearen sorrera izan da. Langraiz bidetik etorri zen proiektua. «Langraiz espetxean zeuden preso batzuk, hausnarketa bat egin ondoren, biktimekin egoteko eta bere mina adierazteko beharra azaldu ziguten», adierazten du. Talde horretan zeuden Urrusolo, Gisasola, Pikabea... eta baita Luis Carrasco ere, Jauregi hil zuen komandoko kidea. «Edozein estatuk presoak birgizarteratzeko politika bat behar du. Denok dugu bigarren aukera izateko eskubidea. Ondo antolatu eta zaindu beharreko kontua zen, diskrezio handiz eramatekoa. Gauza berria zen, ez hemen bakarrik, mundu osoan baizik», dio. Biktimen kezka handiena preso horiek pauso horrengatik etekinen bat lortuko al zuten zen, eta horrela ez zela izango jakin zutenean, aurrera egin zuten. Txema Urkijo eta Esther Pascual izan zi-

tuen lankide bitartekaritza lan horretan. Aurretik lan tailer batzuk egin zituzten kanpoko giroa eza-gutu nahi zutelako, hainbat hizlari-ekin: Gorka Landaburu, Jonan Fernandez, Pello Salaburu, Reyes Mate, Xabier Etxeberria teologoa, Iñaki Garcia Arrizabalaga eta Jaime Arrese biktimak...

«2011ko maiatzean egon nintzen lehen aldiz Luis Carrascorekin, Langraizeko kartzelan. Bizkartzai-nekin nengoen eta Esther Pascual bitartekaria ere izan zen. Pentsa zer egoera. Lasai nengoen, banekien zertara nindoan. Banekien aurrez aurre egongo nintzela niri minik handiena egin zidan pertsonarekin. Nik ez nion ezer txarrik egin, berak niri baizik. Galdetzera eta entzutera joan nintzen. Bera zegoen deserosoago eta oso urduri. Juan Mariri buruz oso gutxi zekien. Bera pertsona gaiztoa zela esan zidan behin eta berriz, ezer onik ez zuela. Nik animatu nuen oso ausarta izan zela esanez, eman zuen aurre-rapausoengatik: ETArekin moztea, atentatuaz damutzea eta nirekin hitz egitea. Gainera jakinda herri honetan heroi izatetik traidore izatera pasatu zela. Horrek dakartzan ondorioekin berarentzat, lagunentzat eta bere familiarentzat. Ia hiru ordu egon ginen hitz egiten. Oso ondo gogoratzen du une hura», aipatzen du.

2012an topaketa hauek amaitu egin ziren, PP Espainiako Gobernuan sartu zenean, gaiarekin jarraitzeko interesik ez zuelako. Maixabel Lasak ez zuen karguan jarraitu. «Urte horren amaieran Ibon Etxezarretak gutun bat bidali zidan bere abokatuaren bidez, nirekin egon nahi zuela esanez, damutu egin zuelako. 2014an izan nintzen lehen aldiz berarekin, Nafarroako herri txiki batean, bi bitartekariarekin batera», dio Jauregiren alargunak. Topaketa hau eta lehendik burutu gabe gelditu ziren beste batzuk erakundeen babesetik kanpo egin ziren. «Luis Carrascori bezala, hari ere esan nion bere ama izatea baino, nahiago nuela Juan Mariren alarguna izatea. Hori esatea oso gogorra da, baina momentu horretan hori sentitzen

«[Juan Mari Jauregi]Gizon irekia zen, asko irakurtzen zuen, gaztetatik politikan konprometitua eta harreman handiak zituen»

JOSE MARI VILLANUEVA

nuen», eransten du. Geroztik gehiagotan elkartu dira, lau zapabost aldiz, bitartekaririk gabe. «Azkena lehengo urte amaieran izan nintzen. Orain kalean dago, kontrolerako eskumuturreko batekin, lana duela-ko. Luis ez dago kalean lanik ez duelako. Pauso hori eman dutenek beharko lukete lana, birgizarteratzeko, ez egindakoaz harro ateratzen direnek».

Konponketaren bila egindako topaketa haietan parte hartu zuten guztiek esperientzia positiboa kontsideratzen dutela dio Lasak. Elkarbizitzarako ona zela pentsatzen zuelako jarri zu-



ten martxan eta oso pozik sentitzen da egindako lanarekin. «Lehenago edo geroago kartzelatik aterako dira denak eta elkarrekin biziko gara. Azken finean Juan Mari hiltzera joan ziren hiru pertsonatako bi damututa daudela jakitea, niretzat askoz ere hobea da, eta ez kartzelatik heroi bezala ateratzea. Espero nuena baino askoz ere gehiago lortu nuen topaketa hauekin», seinalatzen du. Orain, sozialistak berriz Madrilen agintean izanda, positibo ikusten du presoak Euskal Herrira gerturatzeari, legea betetzea besterik ez da bere iritziz,

«Plazagizona zen, konplexurik gabekoa. Gutxi iraun nuen alderdian, baina harremana mantendu nuen Juan Mari Jauregirekin»

XABIER MAIZA

baina pena sentitzen du berak hasitako ibilbideari jarraipena ez diolarik ematen, bi ekimenak osagarriak iruditzen zaizkiolako. Jarraituz gero, beste egoera batean egongo ginatekeela uste du, biktima eta ETAkide gehiagok parte hartuko zutelako.

Liburua, dokumentala, pelikula

Ekimen hau diskrezio handiz burutu zen, baina ezagutzera emateko garaia iritsi zen, komenigarria irudi-

tu zitzaielako, eta *Los ojos del otro, encuentros restaurativos entre víctimas y ex miembros de ETA* libu-



Maixabel' pelikularen grabaketa Juan Mari Jauregiaren monolitoan. ATARIA

rua kaleratu zuten. Hemen eta kanpoan aurkezpen ugaritan parte hartu zuen Maixabel Lasak. «Topaketa hauek ezagutzera ematea mundu guztiari ez zitzaion gustatu, ez biktimen munduan, ez ETaren munduan, kolektibo oso pluralak direlako. Kritika ugari izan genituen, baina askorentzat gauza ona izan zen. Parte hartu genuenok gure borondatez egin genuen, inork behartu gabe. Iritzi guztiak errespetatzen ditugun bezala, gurea ere errespetatzea eskatzen dugu», esaten du legorretarrak. «Denek bigarren aukera merezi dutelako. ETatik pasa eta orain beste alderdi batean dagoen jende asko dago. Bigarren aukera izan dute. Zergatik ez hil duen batek? Giza eskubideak horrela ulertu behar dira. Justizia eskatzen dugu, baina zer justizia? Zigorra ematea bakarrik? Nahiago dut konponketarako balio duen justizia», gehitzen du. «Errespetua da gakoa. Juan Mariri desberdinekin hitz egitea gustatzen zitzaion. Bizikidetzatza ez da denok elkarrekin besarkatuta ibiltzea, desberdina errespetatzea baizik», dio.

Oraindik ere gauza asko dagoela egiteko uste du Maixabel Lasak, «ardura aldetik batez ere, ETaren aldetik eta baita GAL, BVE, Triple A eta horien aldetik ere, gauza batzuk *sekula santan* ez zirela gertatu behar esan beharko lukete, hilketa bat edo politikan egin diren gauza batzuk justifikatzea». Gauza horiek argitzea nahiko luke, ondorengo belaunaldiak «marroi hori» ez uzteko. Hurrei eta gazteei biolentzia inora ez doala esatea garrantzitsua iruditzen zaio. Horretan aritu da hainbat ikastetxetan, beste biktimak batzuekin batera. Kartzelatik pasa eta autokritika egin dutenei ekimen horretan parte hartzera gonbidatzen ditu, «batez ere berriro gerta ez dadin». «Denok egin behar dugu autokritika, biolentzia zegoen garaian non geunden: laguntzen, txaloka, beste aldera begira...», esaten du.

Gero etorri zen *Zubiak* dokumen-

«Topaketa hauek ezagutzera ematea ez zitzaion mundu guztiari gustatu, ez biktimen munduan, ez ETaren munduan»

MAIXABEL LASA



Juan Mari Jauregi artxiboko argazki batean. **ATARIA**

tala, Jon Sistiagak eta Alfonso Cortes-Cavanillasek zuzendua, *ETA, el final del silencio* telebistarako seriearen barruan, 2019ko Donostiako Zinemaldian estreinatu zena. Duela gutxi Tolosan ikusi da, bizikidetzatza jardunaldien barruan *Non dago Mikel?* dokumentala, *Burgoseko prozesua* erakusketa eta *Sisiforen paperak* antzezlanarekin batera. Eta proposamena aspaldikoa izan arren, orain filmatzen ari dira Iciar Bollainen *Maixabel* film luzea gai berean inspiratua, baina fikzioa ere nahastuz. Tolosan izan dira grabatzen eta amaierako eszenan parte hartu dute, aktoreen artean Maixabel Lasa, Xabier Maiza eta Jose

Mari Villanuevak, besteak beste, urtero Burnikurutzetan Juan Mari Jauregi egiten dioten omenaldia irudikatuz. «2014an Ibon Etxezarreta izan zen omenaldi horretan. Aurretik Maixabelek abisatu zigun batzuei. Iritsi zenean batzuk ez zuten ondo hartu. Tentsioa izan zen. Horixe da pelikularako grabatu dugun eszena», gogoratzen du Villanuevak. Datorren irailleko Donostiako Zinemaldian aurkeztu nahi dute.



aridunak



Atarikideentzat **bi liburu** ditugu

- Javier Lasa Zubizarreta (Tolosa)
- Alazne Ruiz Luluaga (Anoeta)

EMARIAK: Emakumeek Historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma.

Liburuen bila Atariako egoitzatik pasa.

saldu, erosi,
trukatu, oparitu
... euskaraz!

iragarkilaburrak.eus


Hemen *eta* online 

**IRAGARRI HEMEN
ETA ESKUALDEAK
BUELTATUKO DIZU**

JARRI ZURE IRAGARKIA ATARIAN
publi@ataria.eus / 661 678 818

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan





Tolosaldeko lan-eskaintzen erakusleihoa

‘tolosaldeagaratzen.eus’ atarian eskualdeko lan-eskaintzak argitaratzen ditugu, baita sare sozialetako gure kanaletan ere

Tolosaldea Garatzenen Eusko Jaurlaritzako Enplegu departamentuarentzat eta Lanbiderentzat lan egiten dugu, lan-eskaintzak kudeatuz, zentro kolaboratzaile, eta kolokazio eta birkolokazio agentzia modura.

Zer esan nahi du horrek? Bada, lan-eskaintza bat iristen den unean, Lanbideren webgunean argitaratu dezakegula, enpresak horrela nahi badu. Gainera, gure datu-base propioa ere badugunez, eskaintza bakoitzera egokitzen diren curriculumak bideratu ditzakegu.

Nola eman izena lan-eskaintza batean?

Lan-eskaintzaren batean interesa izanez gero, Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Sailarekin jar zaitezke harremanetan. Lanbideren webgunearen bidez ere eman dezakezu izena. Lehiberri eraikinean dagoen Enplegu Zentroan ere hitzordua eska dezakezu, batak bat, sailarekin aurrez inoiz harremanik izan ez baduzu.

Gogoan izan, edozein unetan utzi daitekeela curriculumak, gure datu-basean egon nahi izanez gero. Horrela, eskaintza bat iristen den unean, eta zure

profilarekin bat badator, zuzenean abisatzeko aukera izan dezakegu.

Zer egin enpresa gisa lan-eskaintza bat argitaratzeko?

Edozein enpresa, erakunde edo norbanakok du lan-eskaintza bat argitaratzeko aukera. Horretarako, Enplegu sailarekin jarri behar da harremanetan. **Doa-koa** da.

Horrez gain, lan-eskaintza argitaratzen duen enpresentzat selekzio prozesu ezberdinak egin ditzakegu (test psikoteknikoak, talde dinamikak, informatikako frogak...), baita izena eman duten hautagaien balorazioa ere.

Tolosaldea Garatzen | Enplegu Saila
Lehiberri Zentroa
Apataerreketa Industriegunea, 1
lan@tolosaldea.eus
943 654 501



IGOR ESTANKONA
POETA

Orain ulertzen dut

Orain ulertzen dut
asti pixka bat gehiago
behar izatea.

Orain ulertzen dut zergatik
jartzen zaizkien izenak
graziei: orina, sudur-motza, ezpain-lorea.

Orain ulertzen dut zergatik
hainbeste txera eta dedikazio.

Orain ulertzen dut zergatik.

Marko Antonio Flaminioaren latinetik
ekarriak balira bezala hitzok
orain ulertu ditut.

Inoiz bukatzen ez den bide bat delako
umeen larruazalaren usaina.

Izorratu egiten ditugulako
harik eta gugandik
askatzen diren arte.

Orain ulertzen dut:
petaloak dira ur gainean,
loreak lur lehorrean.

Ama* behar dute
aita* behar dute
soilik hasieran.



'The water-babies: a fairy tale for a land-baby' (1915). **DOMEINU PUBLIKOA**



**JOSE AGUSTIN
ARRIETA
EGIGUREN
ERRETIRODUNA**

Giza kalitatea

Asko hitz egiten da kalitateaz eta berrikuntzaz, baina ia beti teknologikoaz hitz egiteko erabiltzen dugu, eta gutxi gizakiez. Gizatasunean haztea da gakoa, pertsona hobeak izateko. Garrantzitsuena ez da daukazu aurpegia, jartzen duzun aurpegia baizik. Azkenean, giza kalitatea zentzuaren kalitatea da. William Shakespeare idazle ingeles handiak (1564-1616) honela idatzi zuen: «Pertsona bat handia da eskua luzatzen duenean, ahoa ixten duenean eta bihotza irekitzen duenean».

Agurtzeko, besarkatzeko, laztantzeko, emateko eskua luzatzen jakiteak handia egiten du pertsona bat. Eta ahoa ixten jakitea, gezurrik ez esateko, marmarrik ez egiteko, isilik geratzeko eta behatzeko, harago kontenplatzeko handitasunaren seinale ere bada.

Azkenik, bihotza irekitzen jakitea, ulertzeko eta maitatzeko, besteen beharretan interesatzeko, une zailetan gure hurkoei kontsolatu eta laguntzeko eta mundu justuago, gizatiarrago eta anaikorrago bat eraikitzeko, pertsonaren handitasunaren agerpen argia ere bada.

Shakespearearen hiru aholku hauek: eskua luzatu, ahoa itxi eta bihotza zabaltu; ez al zaizkigu beharrezkoak giza kalitatea aberasteko eta sendotzeko? Badira hamar aditz oso garrantzitsuak direnak eta ahaztu behar ez genituzkeenak indar etiko berezia dutelako: behatu, entzun, hitz egin, elkarriketatu, irakurri, idatzi, hausnartu, gogoratu, eskertu eta jardun.

Urtaro berriari ateak ireki dizkiogu: udaberria hasi berria dugu. Horregatik, hobe da etorkizunari jarrera positiboarekin begiratzea, jarrera negatiboarekin baino. Horrelako zerbait zioen Zizeronek (106-43 K.a.): «Gaztaroan ikasi egiten dugu, zahartzaroan, berriz, ulertu». Bizitza bizitzeko da, ez arrastaka eramateko, baizik eta bere txinparta ateratzeko, zoriontsu izanez eta besteak zoriontsu egiten saiatuz.

**Shakespearearen
hiru aholku
hauek: eskua
luzatu, ahoa
itxi eta bihotza
zabaltu; ez al
zaizkigu
beharrezkoak
giza kalitatea
aberasteko eta
sendotzeko?**

Irlak eta islak



**ARANTZAZU
LIZARTZA
SAIZAR
HERRITARRA**

Hiribarruko autobusean horretaz dihardu nerabe talde batek.

Hizketagai berdinez mintzo dira lantokian. Eta gaztetxo zein ez hain gaztetxoaren artean eragindako arrakasta ulertezi-na zaidan arren, *Tentazioen Irlaz* ariko natzaizue gaurkoan, begirada zorrotz batetik bada ere. Horretarako, gogoaren

kontra, kapitulu batzuk ikustera kondenatu dut neure burua; eta, egiari zor, nahikoak izan zaizkit bi kapitulu analisia egin eta lerrook osatzeko.

XXI. mendean eredu patriarkatu hegemonikoaren erakustokia, pantaila txikian, aizue! Eta guztiz arduratzen nau herritarron ehuneko esanguratsu batek pro-

kin ohea partekatu eta harreman sexualik izan ez duela onartu?

Gizarte *zifrista* honetan, non garrantzitsuena zenbakia den, gizonak, geroz eta harreman sexual gehiago izan, orduan eta domina gehiago eskuratzen dituela ikus daiteke programan; ifrentzuan, emakumeak harremanak izan ahala, urdanga gisako etiketak pila-tzen ditu. Emakume jabetza edo *kosifikazio* kontzeptuaren zeinu nabarmenak dira jarrera horiek, eta min gehien ematen didana zera da, jarrera horiek normalizatuak egotea edo onartuak direla ikustea.

Gainera, programan nabarmendu daitekeenez, desioak edo apetak ez du ez izaera ez onarpen berdina gizonak edo emakumeak sentitzen baditu. Apeta gizonaren berezko nolakotasun bat izan behar duela dirudi, bai edo bai, eta ez sentitzea, kasu, zantzu txarra dela. Aldiz, emakumeak desio sexualak baditu,

Eta guztiz arduratzen nau herritarron ehuneko esanguratsu batek programa irentsi duela jakiteak; edo, areago, horretan zirela, kontrako eztarrira joan ez zaiola pentsatzeak!

grama irentsi duela jakiteak; edo, areago, horretan zirela, kontrako eztarrira joan ez zaiola pentsatzeak!

Gizonak. Eta gizentasun hegemoniko patriarkatuaren irudia. Balentria sexualak lagunartean barreka elkarbanatzen dituen gizon eredu hori bera pantailan; sexu-kidearen (kasu honetan emakumearen, eredu heterosexualak direlako) nahiak aintzat ez hartuz eta urratuz. Gizontasuna modu horretan aldarrikatzeko premia du gizonak komunitate maskulinoan onartua izateko, antza denez. Hala aldarrikatzen al du gizon sentiberak? Zergatik ezin du gizonak emakume bate-

maitasun erromantikotik harago, segituan zikin edo emakume txarraren izenondoa jartzen zaio. Hainbat iruzkin, irudi eta epaitan emakumearen plazera jartzaren da eta soilik asetzeko funtzioa egozten zaio. Gogoratzen dizuet XIX. mendean gaudela, badaezpada.

Askoz gehiago luzatu gabe, telebistan guztia ez da fikzio, eta, zalantzati zein kezkatu naiz, irakurketa hau egin ote duten programa ikusi duten hiritarrek. Argi dago, irlak islatzen duenarekin zerbait egin beharra dagoela, eta azkar!



GAZTEEN ETORKIZUNA LANTZEN

#NikEreBatxilergoaOrixen

Aurrematrikula epea: Idazkaritzan edo Online: apirilaren 12tik 23ra

Batxilergoak:

- Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

**Eskaintza zabala
eta eleanitza**



ORIXE TOLOSA BHI: Santa Luzi, 16 • Tolosa 20400 - Gipuzkoa • 943-89 92 89 • www.orixe.net

Jakin nahi duzu BERRIAn lan egitea zer den?

Trebatu zaitez kazetaritzan BERRIAko praktiken bidez

Hemezortzi postu KAZETARITZA praktiketarako.

Uztailean eta abuztuan

Andoain, Bilbo, Gasteiz eta Iruñeko erredakzioetan.

Azterketa eguna: maiatzak 2, osteguna, leku hauetan:

- **Andoainen**, BERRIAren egoitza nagusian, Martin Ugalde kultur parkean. 16:00etan.
- **Leioan**, EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 41. gelan. 11:00etan.
- **Gasteizen**, Letren Fakultateko 0.08 gelan, 15:00etan.
- **Iruñean**, BERRIAren egoitzan (Iratxeko Monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerra). 11:00etan.

Interesa baduzu, bidali mezu bat gizabaliabideak@berriataldea.eus helbidera **apirilaren 30a baino lehen**, eta adierazi azterketa non egingo duzun. Probara curriculuma ekarri behar da, eta ahal duenak eskuko ordenagailua ere bai.



IZAR ZELARAIN
HARITUZ-EKO KIDEA

Hil eta bortxatu

Doinua Habanera

Mexikoko egoerak
benetan nau amorratu
Prentsan agertu bai dira
aste hontan hainbat datu
Zenbat emakume hil ta
zenbat dituzten bortxatu
Gobernuak badaezpada
ez du nahi asko aipatu
Ta guk egoera hau ez
dezagun normalizatu
Gutxi batzuk borrokatuz
ezin daiteke aldatu
Beraz egin behar degu
guztion indarrak batu
Aldatu beharra dago ta
ez gaitezen ezkutatu.



AGENDA

OSTIRALA APIRILAK 16

ALTZO

DOKUMENTAL PROIEKZIOA

18:30. *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentalaren proiektzioa. Gonbidapenak Ostatuan jaso daitezke. Batzarremuñon eskainiko da.

AMASA-VILLABONA

KONTZERTUA

19:00. Habi & Etxekalte taldeen kontzertua. Bi taldeek batera sortutako abestien aurkezpena. Sarrera: 5 euro. Gurea antzokian.
**Irakurri elkarrizketa 26-29 orrietan.*

ANOETA

DOKUMENTAL PROIEKZIOA

18:00. *Death-Cafe: Heriotzaz eta doluaz hitz egiteko gunea* izango da. Ostean, *Aulki hutsak* dokumentalaren proiektzioa ikusita, solasaldia egingo dute, Mikelasagasti auditorioan.

IBARRA

HITZALDIA

18:00. *Gaitasunen eta dohainen ekonomia.* Nekane Juradok eskainita (Ekonomian, Aktuaritza eta Finantza Zientzietan, eta Psikologia Klinikoan lizentziaduna). Edukiera bete arte, plazan.

IRURA

PROIEKZIOA

18:30. *Annapurnaren magalean pausoz pauso* ikus-entzunezkoaren proiektzioa. Euskaraz, publiko orori zuzendua, gonbidapena eskatzen du. Irura Bizi elkarteak antolatuta, Kulturunean.

TOLOSA

BAKARRIZKETA

19:00. Antton Telleriaren *Nekatu-*

tak ikuskizuna. Sarrerak agortuta. Leidor antzokian.

FILM PROIEKZIOA

19:00. *Dehesa* filma botako dute, Naturaren eta Ingurumenaren l. Zinemaldiaren barruan, Topic-en.

ERAKUSKETA

17:30-20:00. *Askatasuna. Espe-txea eta Arte.* Espetxean eginiko artelanen erakusketa. Sortuk antolatuta, Preso Politikoen Nazioarteko Eguna dela probestuz. Kultur etxean, ostiralean eta larunbatean.

LARUNBATA APIRILAK 17

ALKIZA

IBILALDIA

10:00. Fagus-Alkiza interpretazio-zentroak inguruko txoriak eta hauen kantuak ezagutzeko ibilaldia antolatu du. Mikel Olano basozainak gidatuko du saioa. Alkizako plazan egingo dute hitzordua. Bost euroko prezioa izango du, baina alkizarrentzat eta 12 urtetik beherakoentzat doan izango da. Parte hartzeko, aurrez eman behar da izena *kultura@alkiza.eus* helbidean edo 688 604 466 telefonon.

IRURA

BISITA GIDATUA

18:30. Irurako emakume taldeak antolatuta. *Balio erantzia: edertasunari buruzko gogoeta* erakusketara bisita gidatua. 61 irudiz eta hitzez osatutako erakusketa, Ekaitz Goikoetxea eta Josu Marotoren eskutik. Euskaraz, helduentzat. Bisita gidatuak gonbidapena eskatzen du. Herri eskolako aretoan.

LARRAUL

M8

18:00. Kultur etxean tailer-hitzal-

dia eskainiko du Enara Iruretagoienak: *Ziklikoak gara.*



LIZARTZA

IKASTAROA

11:00. Euskal Herriaren historian sakontzeko ikastaroa izango da, Fernando Rojoren eskutik. 18 urtetik gorakoei zuzendua da, eta 10 euro ordaindu beharko dira. Interesatuak 649 497 393 telefono zenbakira deitu beharko dute. Udaletxeko aretoan.

TOLOSA

EMANALDIA

Ernairen udaberriko ekimeneko egitaraua. Chill-Mafia + Ben Yart, Burutik eta XSakara. Topic-en.

PAILAZO IKUSKIZUNA

16:00. *Amaren intxaurrek* ikusizuna. Haurrak Pirritx eta Porrotx Marimototsekin elkartuko dira parke magikoan. Amatxo Loreto duela hiru urte hil zen. Intxaurren doa landatu zuten amatxoren oroimenez, bere agurrean. Gaur intxaurren emandako lehen fruituak dastatuko dituzte. Intxaurrek jan ahala, Loretoarekin bizitako abenturak partekatuko dituzte haur eta familiekin. Dolua igarota, gaur pozik daude pailazoak, berekin akordatzeko diren aldiro irria ateratzeko zailako ezpainetan, intxaurrek zaporeko irria. Marimototsek gordeak ditu amak emandako haziak, parkeko landare eta lore magiko guztienak. Leidorren.

KONTZERTUA

19:00. Bartzelonako Tokyo Sex Destruction taldearen kontzertua. Sarreraren prezioa 8 euroko da. Bonberenean.

ZIZURKIL

TAILERRA

11:00. Organikoa konposatzen dutenei eskainitako ikastaroa, herri-irriguneko auzo-konpostagunea.

IGANDEA APIRILAK 18

AMASA-VILLABONA

HAUR ANTZERKIA

17:00. *Kaskarot* ATX teatrot eskainitako haur antzerkia. Sarreraren prezioa: 6 euro. Agure batek istorio bat kontatuko du. Aner gizarte distopiko batean bizi da, non dantzatzea debekatuta dagoen. Anerri izugarri gustatzen zaio dantza egitea eta horrek arazo larriak sortzen dizkio. Kaskarot Anerren *alter egoa* da. Bere ingenio eta zentzuaren bidez, Anerri erakutsiko dio bere egoerari buelta ematen eta arauen aurrean bere adierazpen askatasuna lehenesten. Gurea antzokian.

ANOETA

DOKUMENTAL PROIEKZIOA

18:00. Ernaik antolatuta, *Manzanas, pollos y quimeras. Mujeres que cruzaron el mar de arena* dokumentalaren proiektzioa, Mikela-sagasti auditorioan.

IRURA

BERTSO ANTZERKIA

17:30. *Urpekariak* bertso antzerkia. Modu sotil eta umoretsuan, ikuslerik txikienak beren gorpuztegi begira jarri eta aniztasunaz, sexualitateaz, genero-rolaz... hausnar dezaten zirikatzeari helburu duen ikuskizuna. Euskaraz, 6-11 urte bitarteko haurrentzat. Gonbidapena eskatzen du. San

Migel plazan edo Kulturunean.

TOLOSA

KONTZERTUA

12:00. Anari akustikoan eta bakar-lari moduan entzuteko aukera. Sarreraren prezioa 8 eurokoa da. Sarrerak agortuta. Bonberenean.



AURKEZPENA

17:30. Kontseilu Sozilaistak antolatuta, *M1. Sozialismoaren aldarria berreskuratu* dinamikaren aurkezpena, Berdura plazan.

ASTELEHENA APIRILAK 19

ANOETA

IKASTAROA

18:00. Sendabelarren ikastaroa egingo dute Sara Letamendiaren eskutik, astelehenetan, maiatzaren 24ra bitartean. 60 euro ordaindu beharko da, eta izena emateko liburutegira joan beharko da edo kultura@anoeta.eus helbide elektronikora idatzi.

TOLOSALDEA

AURKEZPENA

16:30. Gipuzkoako Turismo Plan Estrategikoaren aurkezpen ekitaldia. *Online*.

ZIZURKIL

URTEURRENA

Plazida Otaño liburutegiaren 5. urteurrena. Nekeetan, irria ezpailan, umorea bidelagun. Motxila ibiltariko erakusketa. Gaur zabaldu eta apirilaren 30a arte zabalik.

ZINEMA



CUÑADOS

Larunbata, igandea eta astelehena (16:45).

Amasa-Villabona, Gurea.



DRUK (OTRA RONDA)

Larunbata, igandea eta astelehena (18:45).

Tolosa, Leidor.



LUPIN III THE FIRST

Igandea (16:00).

Tolosa, Leidor.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.

«Denbora honetan gure arimak batera daude»

Villabonako Habi taldeak eta Bermeoko Etxekaltek elkarlanean egindako 'Arimak denboran' proiektua kaleratu berri dute

Leyre Carrasco

Bikote bat izatetik, seikote bat izatera igaro dira Yeray Gascon eta Jon Ander Artola, Habi taldeko kideak. Hain zuzen, Unai Irisarri, Jonan Juarez, Iker Etxebarria eta Iñaki Olondo, Etxekalteko kideak batu zaizkie taldera. Garagardo artean hasi den lana, memorian iltzatuta geratzea nahi dute guztiek. Dagoeneko hasi dute bidea, eta lehen geldialdia izango da Villabonako Gurea antzokia, gaur, 19:00etan. Elkarlanean sorturiko proiektu honen nondik norakoak kontatu dituzte Artolak eta Irisarrik.

Noiz eta nola batu ziren Habi eta Etxekalteko bideak?

Jon Ander Artola: Sare sozialen bidez bakoitzak bestearen musika entzun ohi izan du, eta bestearena asko gustatzen zitzaigun. Pasa den urtean, kasualitatez, kontzertua izan genuen Durangoko Azokan; Ahotsenean, hain zuzen. Etxekaltekoak standean zeuden.

Unai Irisarri: Hori da, Durangoko Azokan elkar ezagutu genuen eta hortik aurrera oso erlazio ona izan dugu. Habi taldea Bermeora etortzen hasi zen, Urgatz, Bermeoko beste talde batekin oso erlazio ona zutelako. Orduan, gure arteko erlazioa sendotzen hasi zen kolaborazioen bidez. Hau da, nik Habiren kontzertu batean abestu izan dut eta Yerayk [Gascon] gure kontzertuan.



Egun batean, bi taldeen artean abesti bat egitea pentsatu genuen, eta gure lokalera etorri ziren, Bermeora. Bakoitzak ideia bat ekarri zuen etxetik, eta horiek elkartuz sortu zen *Denboran* abestia; bai musikalki, baita letra ere.

Garagardo artean sortutako elkarlana dela diozue. Nola gauzatu zenuten proiektua aurrera eramateko ideia?

J.A.A.: Habi bigarren diskoarekin hasi zenean, Elkar diskoetxearekin kontratu moduko bat egin genuen. Victor Sanchez, Elkar argitaletxeko soinu teknikariak Etxekaltekokin batera zerbait ari ginela egiten ikusi zuen, eta Etxekalte entzun zuenean pila bat gustatu zitzaion. Beraz, berak ere proiektu honetan parte hartu nahi zuela adierazi zigun. Hasiera batean gure ideia guretzat izango zen kanta bat grabatzea izan zen, eta aurrerago ikusiko genuke zer egin. Estudioan grabatzeko aukera oso polita izan zitekeela ere



aurreikusi genuen, horrek profesionaltasuna ematen baitzigun.

U.I.: Bigarren abestiarena Elkarren ideia izan zen. *Denboran* grabatu ostean, Jituk, Elkarren musika mundua eramaten duenak, beste kanta bat grabatzeko proposamena egin zigun baina beste formatu batean. Ideia asko gustatu zitzaigun, eta baiezkoa esan genuen. Beraz, bigarren kanta ez zen bestea bezain natural atera.

Batzuk bermeotarrak eta beste batzuk billabonata-rrak. Distantziari dagokionez, zaila izan da lana aurrera eramatea?

U.I.: Nahiko zaila izan zen guztiok elkartzea.

J.A.A.: Gu Bermeora joan ginenean bazegoen mugitzerik, baina horren osteria ez. Abestia sortu eta grabatu egin nahi genuen, baina ezin genuen elkartu. Orduan, Etxekaltekoek beren kontura sortzen zutena bidali egiten ziguten, eta guk berdin. Eromena izan

zen, hori ez baitzen lan egiteko modu aproposa izan. Azkenean, Elkarrek mugikortasun-baimena egitea lortu zuen bi taldeak estudiora etortzeko. Etorri bezain pronto, egun batetik bestera sortu genuen bigarren abestia.

Eta estiloari dagokionez?

U.I.: Konposizio unea apurtxo bat zaila izan zen. Izan ere, bakoitzak ekarri genituen ideiak ez ziren oso argiak izan, eta horrek arazoak sortu zituen. Gainera, abestia sortu eta hori grabatzeko data bat zegoen.

J.A.A.: Hori guztia egiteko egun bat duzula dakizunean, eta arratsaldea izanda, oraindik ezer ere ez duzunean, sortzen da tentsio hori. Oso erlazio ona dugu gure artean, eta oso ondo funtzionatu dugu elkarlanean; baina kontuan izan behar da, sei buru garela eta bakoitzak bere iritzia duela.

Habiren kasuan, agian, gehiago antzeman da aldaketa hori; izan ere, bi izatetik sei izatera pasa zarete. Nola banatu dituzue zereginak?

J.A.A.: Habiko kanta sortzen ditugunean, Yerayk abestia gutxi gorabehera egituratuta ekartzen du; bai gitarraren aldetik, baita melodiaren aldetik ere. Gero, lokalean ematen diogu forma. Kasu honetan antzeko zerbait egin dugu.

U.I.: Etxekalteren kasuan ere berdin. Nik normalean melodia duten ideia batzuk ekartzen ditut, eta hortik hasten da kanta osatzen. Hemen ere berdina izan zen.

J.A.A.: Musika eta letrak modu horretan sortu ziren. Gainera, letra estudioko sofán idatzi genuen. Zati bat eginda zegoen, baina forma hemen eman genion.

U.I.: Hori da, letra Bermeon egiten hasi ginen Iker eta biok. Grabatzera etorri ginenean hemengo sofa hauetan bukatu genuen.

Apirilaren 12an, 'Arimak Denboran' izenarekin kale-ratu zenuten lana. Nondik dator izena?

U.I.: Nik kanta bat konposatzen dudana momentuan kantagatik sentitzen dudana botatzen dut. *Arimak* hitza da, *denboraren* hitza. Horrela irten zen. Pentsatu genuen ideia ona izan litekeela elkarlanarekin batera lotzea, hau da, lagunaren arteko elkarlan bat da

eta arimaren beste aldera ordena ere aldatu zaigu. Hau ere bat dator egun bizitzen ari garen egoera honekin. Pentsatu genuen hitz *potenteak* izango zirela arimak eta denboran. Gero bi taldeen izenak elkartzea ere pentsatu genuen, eta izenburu hori ematea lanari. Abestiekin berdin, baten amaiera abestiaren hasiera izango zen. Horri zentzua emanaz, hitz-joko bat egitea pentsatu genuen.

J.A.A.: Hori ere portadako diseinuan erabili dugu. Azkenean, *arimak* gu izango bagina bezala islatzen du; gure barrukoa izango balitz bezala, alegia. *Denboran* berriz, gaur hemen gaudela esan nahi du. Denbora honetan gure arimak batera daude, eta hori islatu nahi izan dugu.

Soinu indartsua duten bi musika talde zarete. Lan honetan hori ere azpimarratu duzue?

U.I.: Gitarraren soinu gogorak eta *potenteak* beti daude presente; bai Etxekalten, baita Habin ere. Hori mantendu dugu, baita zati lasaiak ere. Bi taldeetan dinamismo asko dago, eta hori bere horretan utzi dugu.

Zer entzungo dugu lan berri honetan?

J.A.A.: Etxekalte eta Habi. Batak bestea errespetatu du. Egia da, *kaña asko* daukaten abestiak direla. Egurra dago, baino oso melodikoa da baita ere. Bi errepika oso alaiak geratu zaizkigu, dantzatzeko modukoak, alegia.

Lehen bideoklipa ere kaleratu duzue; hain zuzen, 'Arimak' kantuen bideoklipa. Orain arte ikusitakoarekin alderatuta, oso desberdina.

U.I.: Oso profesionala da. Jende pila bat egon da horren atzean lanean. Iñigo Iriondo *Gatom*, gure soinu teknikaria izan da guztia burutu duena.

J.A.A.: Gainera, bideoklipak berak istorio bat kontatzen du. Alba Lozano izan da zuzendaria. Berak eraiki du istorioa eta emaitza oso borobila geratu zaio.

Elkar argitaletxea proiektu honen parte izan nahi zuela ere aipatu duzue.

J.A.A.: Guretzat hori izugarria izan da. Guk musika gustatzen zaigulako egingen dugu, inongo presiorik gabe.

«Elkar enpresak gure proiektuaren parte izan nahi duela esatea izugarria da»

JON ANDER ARTOLA



Gure asmoa ez da honetaz bizitzea, baina Elkar bai bizi dela honetaz. Elkar bezalako enpresa batek gure proiektuaren parte izan nahi duela esatea, izugarria da. Horregatik, proiektu polita eta kalitatezkoa egingen saiatu gara. Hortaz aparte, Victor Elkarren parte izanik ere, laguna da. Hori dela eta, gure proiektuan egotea ezinbestekoa zen, baita Jitu eta Gatom ere.

Villabonan eskainiko duzue birako lehen kontzertua, eta bertan sakonago ezagutu ahalko da lan hau. Zerbait berezia duzue prestatuta?

U.I.: Amaiera epikoa izango da.

J.A.A.: Nik uste dut planteatu dugun bezala, nahiko sorpresa izan dela. Azkenean, bi talde izango gara, baina bat izan nahi dugu. Bakoitzak bere kanta joko ditu, eta bi kanta berri hauek jotzea izango da amaierako asmoa. Nik uste dut oso polita izango dela.

U.I.: Berezia izango da, denak batera



Etkekaitzeko Unai Irisarri eta Habiko Jon Ander Artola. **L. CARRASCO**

egongo garelako agertokian. Hala ere, bakoitzaren funtzioa zertxobait desberdina izango da.

J.A.A.: Hori da, bateriaren kasuan adibidez, lkerrek *Arimak* kantan joko du, eta nik berriz, *Denboran*. Sortzeko garaian ere lehenengo denboran sortu genuen. Modu horretan, ni jotzen nengoen bitartean, lker zenbait aholku eman zizkidan, zer hobetu neza-keen eta zer ez, eta alderantziz. Batak abesti bat jo eta besteak beste bat jo arren, bata besteari laguntzen eta aholkatzen egon gara.

Nola planteatu duzue bira?

U.I.: Momentuz, bost data dauzkagu, eta seigarrena konfirmatzeko dago oraindik, Bermeokoa.

J.A.: Kontzientek gara egun kontzertuak lortzea oso zaila dala. Bi abestiak grabatu ostean, Elkarrek bi taldeak batera bira bat egin behar genuela planteatu zigun. Oso pozik gaude

«Bi kanta sortzeko nahikoa iskanbila sortu dugu; baina inork ez daki etorkizunean zer gertatuko den»

UNAI IRISARRI



momentuz lortu dugunagatik: apirilean bi dauzkagu, maiatzean hiru eta ekainean, segur aski, beste bat aterako da.

U.I.: Gauden egoeran egonda, ezin dugu gehiago eskatu.

Momentuz bi kanta soilik dituzue. Etorkizunari begira, proiektua hantitzeko asmoa duzue?

U.I.: Bi kanta sortzeko nahikoa iskanbila sortu dugu, baina oraindik inork ez daki zer gertatuko den etorkizunean. Gu eta Habi lagunak gara, eta lasai asko sortu genezake beste proiektu bat.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro nahiko hotza izango dugu. Goizean hodeitza trinkoa izango da, baina orokorrean ateri eutsiko dio, nahiz eta, ez den baztertzen euri langar pixka bat egitea. Arratsaldean zerua argiago agertuko da eta ostar-te batzuk ikusiko ditugu. Haizeak iparraldetik bizi joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, altuenak 10-11 gradutan errendituko direlarik.

LARUNBATA

Moteletik hasiko dugu eguna, baina orduak aurrera egin ahala, eguraldiak hobera egingo du. Goizean hodei tapakia trinko xamarra izango da eta euri-langar pixka bat ere izango da. Goiz erdi-eguerdirako atertu egingo du eta arratsaldean hodeitza saretuago agertuko da, ostar-te batzuekin. Haizeak iparraldetik bizi xamar jotzen jarraituko du eta tenperatura balio altuenak ez dira 10-12 gradutik pasako. Egiten duen prezipitazio apurra, elurretan izango da 1.000 metrotik gora.

IGANDEA

Goiz partean hodeitza trinkoagoa agertuko da eta egunsentian euri-langar pixka bat egitea ez da baztertzen. Hala ere, goiz erdirako ostar-teak nagusitzen joango dira eta arratsaldean eguraldi eguzkitsua geratuko zaigu. Haizeak ipar-ekialdetik ahul joko du eta tenperatura balio altuenak igo egingo dira, 15-16 gradutan joaz goia.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

APIRILAK 16, OSTIRALA
TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

APIRILAK 17, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

APIRILAK 18, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

APIRILAK 19, ASTELEHENA
VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

SUPERFAMILIA PLANA!

%30 des- kontua



VARILUX®
ESPECIALISTA

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiópticas.com   

multiópticas